

ZOKKETAREN OINARRIAK:

Esperientzia La Perlan Donostia Turismoaren eta Zurich Maratón San Sebastián-en eskutik

LEHENA

Urriaren 24an @sansebastiantourism eta @maratonsansebastian Instagrameko kontuetan kolaboratiboki argitaratuko den postean parte hartzen duten pertsona guztiek hartuko dute parte zozketa honetan.

Horretarako, @sansebastiantourism eta @maratonsansebastian Instagrameko kontuei jarraitu beharko da, argitalpenari *like* eman eta benetako kontu bat aipatu beharko da publikazio honetako iruzkinetan.

BIGARRENA

Zozketa bat egingo da lehen puntuan aipatutako baldintza guztiak bete dituzten erabiltzaile guztien artean. Irabazle bat eta 5 ordezkotako aukeratuko dira. Irabazleak ez badute erantzuten @sansebastiantourism edo @maratonsansebastian-ek bidalitako mezuei gehienez 72 orduko epean, saria ordezkotako bati pasatuko zaio, eta horrela hurrenez hurren ordezkotako zerrenda amaitu arte. Irabazle eta ordezkotako inork ez badu 72 orduko epean erantzuten, zozketa hutsik geratuko da.

HIRUGARRENA

Parte hartzeko epea 2024ko urriaren 24an hasiko da eta azaroaren 7an amaituko da, 23:59an. 2024ko azaroaren 11n egingo da zozketa Donostia Turismoaren bulegoetan, eta hurrengo 4 egun naturaletan irabazlearekin harremanetan jarriko da @sansebastiantourism edo @maratonsansebastian Instagrameko kontuen bidez.

LAUGARRENA

Saria:

- Talaso Zirkuitoa eta bazkaria La Perlan bi lagunentzat.
 - Hurrengoa biltzen du: Talasoterapiari 3 orduko zirkuitu bat eta bi lagunentzako bazkari bat.
 - Xehetasun guztiak esteka honetan:
<https://www.sansebastianturismoa.eus/eu/shop/museoak-aisialdi-ikuskizunak/4458-talaso-zirkuitoa-eta-bazkaria-edo-afaria-la-perlan>
 - Baliotasuna: 2025eko azaroaren 11ra arte.

BOSGARRENA.

Donostia Turismoak berea du partaidetzatik inor salbuesteko eskubidea, baldin eta iritziko balio delako pertsona horrek iruzurrez edo laidoz diharduela beste parte-hartzaileen kontra.

SEIGARRENA.

Donostia Turismoak oinarri hauetan jaso gabeko egoerak ebatzi ahal izango ditu, baita interpretazioari buruz sor daitezkeen zalantzak ere.

ZAZPIGARRENA.

Zozketa Donostia Turismoak antolatu du eta bertan ez du parte hartzen eta ez du erantzukizunik INSTAGRAM. INCek.

ZORTZIGARRENA.

Zure datu pertsonalak kudeatzeko erantzukizuna duen enpresa San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, S.A da, Donostian egoitza duelarik eta A-20188884 identifikazio zenbakiarekin. San Sebastián Turismo/Donostia Turismoa, S.A-k zure pribatutasuna eta datu pertsonalen babesari garrantzi handia ematen dio. Hori dela eta, zure informazio pertsonala arreta handiz tratatzen da eta seguru mantenduko da.

Datuak babesteko araudiak dioenaren arabera, zehazki, 2016/679 (EB) Arautegian, 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentu eta Kontseiluko pertsona fisikoen datu pertsonalen babesaren inguruan zehazten denaren arabera, datu pertsonalen tratamendua eta datu horien zirkulazio libreaki dagokionez, parte hartzaile bakoitzak Lege Oinarri hauek onartuta, lehiaketa honetan parte hartzeko emandako datu pertsonalak San Sebastian Turismo / Donostia Turismoa, S.Aren fitxategi batean sartzeko baimena ematen du lehiaketan parte hartzea kudeatzeko eta irabazleei jakinarazteko.

Parte-hartzaileek eskubidea dute (i) beraien datu pertsonaletara sartzeko, baita (ii) zehaztasunik gabeko datuak zuzentzeko edo ezabatzeko, (iii) datuen tratamendua mugatzeko, (iv) datuen tratamendua ezeztatzeko eta (v) haiek mugitzeko.

Parte-hartzaileak, Kontrol Agintaritzaren baten aurrean erreklamazioa aurkezteko eskubidea izango du, ohiko bizilekua edo ustezko arau-haustea gertatu den lekuan, datu pertsonalen tratamendua egokia izan ez dela pentsatzen bada, baita eskubideak betetzen ez direla uste bada ere.

BEDERATZIGARRENA.

Donostia Turismoak, Instagram-en Pribatutasun Politika arretaz irakurri dezan gomendatzen dio parte-hartzaileari, ondorengo estekan aurki daitekeena:

Instagram: <https://help.instagram.com/155833707900388>

HAMARGARRENA.

Donostia Turismoak oinarri hauek aldatu edo zabaltzeko eskubidea izango du parte-hartzaileen eskubideak kaltetzen ez dituen bitartean.

HAMAIKAGARRENA.

Lege-oinarri hauek Espainiako legediaren arabera arautuko dira. Donostiako Epaitegi eta Auzitegiak izango dute oinarri hauen indarraldiaren, interpretazioaren edo betetzearen inguruan sor daitekeen edozein erreklamazio edo gatazka ebazteko eskumena.

HAMABIGARRENA.

Zozketa honetan parte hartzeak oinarriok erabat onartzea esan nahi du.